



Erabakiaren «kutsu politikoa» salatu dute 'Egunkaria Auzi'koek

«EZUSTEKOA» ▶ Martxelo Otamendi tolosarra, Torrealdei, Uria, Oleaga, Zubiria eta Aumendi auzipetuek euren «harridura» azaldu dute

«ERRUGABEAK» ▶ Atzoko agerraldian euren errugabetasuna aldarrikatu zuten, «deliturik ez dagoelako eta fiskalak auzia ixteko eskatu zuelako» ▶ 6

TOLOSALDEA ▶



A. IMAZ

Donejakue Bidea zaldi gainean egin dute

30 zaldun inguruk
egin dute Bidearen
Astearen baitan ▶ 6

TOLOSA ▶

Udaberriko barazki ugari atzo azokan

Eguraldi onak
jendea erostera
animatu zuten ▶ 6



Euskal doinuak eta dantzak, txikienen eskutik

TOLOSA ▶ Euskal giroak herria hartu zuen atzokoan, Lizardi Kultur elkarteak antolaturiko Asteburu Kulturalaren baitan. Lehen aldiz eta eguzki gogor baten pean, Tolosan euskal giroa sortzeko eta zabaltzeko helburuarekin dantza, kantuak eta parranda uztartu zituen egitaraua osatu zuten antolatzaileek egun osoan zehar. Hala, goizean zehar, eskualdeko dantzari txikiak kaleetan barrera giroa jarriaz ibili ziren eta Triangulon ema-

naldi bikaina eman zuten —argazkian—. Bezperan ere, helduagoen txanda izan zen eta iluntze aldera herriko kaleak euskal doinuaren erreinu bilakatu zituzten. Eta gaur ere izango dute zer gozatu, besteak beste, Zerkausian antolatu duten bazkarian. Bertan musika eta giroa ez dira faltako. Halaber, Milakabilaka ariketari atxikimendua emateko aukera izango dela jakinarazi dute, eta arduradunak bertan izango dira 13:00etatik 14:30era. N.U. ▶ 6

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

Eglatan / Gezurretan



Bada pelikula bat, eternal sunshine of the spotless mind, asko gustatzen zaidana. Pelikularen argudioa kuriosoa da oso: mutil batek bere neska lagun ohia ahaztu nahi du eta, hartarako, ahazteko makina daukan mediku batengana jotzen du. Pelikularen zati gehiena mutilaren buru barnean kokatzen da, makina ezabatzen ari den oroi-

tzapenak ikusten ditugu pantailan. Pelikularen momentu batean, protagonista ohartu egiten da bere buru barnean dagoela, galtzen ari diren oroitzapenak atzeraka berriro bizitzen, eta neska harekin izandakoa ez duela ahaztu nahi konturatzen da. Azkeneko oroitzapenean ezagutu ziren momentua ikusten dugu, eta honakoa esaten dio batak besteari:

-Eta momentu honetan buelta eman eta alde egin nuen

-Ez zenidan agur esan

-Ez, ez nizun agur esan

-Egizu orain, asmatu despedida bat. Itxura egin dezagun eduki genuela.

Pelikulako momenturik hobereana iruditzen zait. Alde batetik, egiazko despedida bat da, mutila neskaren oroitzapena agurtzen ari baita. Baina bestetik gezur bat da, tipoa agurra asmatzen ari da, badaki bizitzen ari dena oroitzapen bat dela, ez dela erreala, badaki parean duena ez dela egiazko neska bat eta bizitzen ari dena ez dela egiazko momentu bat. Baina, halere, gezurrak merezi du, gezurrak momentu hori edukitzea posible egiten baitio mutilari (hori litzateke eszenaren irakasgaia).

Eta zertara datorren hau? Ba atzo gauean, internetez ezagutu duen lagun bati idaztean, pisukideak egia gogorregia denez gezurrak bizitzen ditugula esan zuelako, eta pelikularen eszena gogora ekarri zidalako (beno, eta zutabera-

ko beste gairik aurkitzen ez dudalako). Ez dakit, Doctor Deseoren («vamos a engaños y dime, mi cielo, que esto va a durar siempre») gogoratzen dit. Askotan, gezurrak bizi ditugu eta kontziente gara hartaz, baina horrek merezi du momentuak bizitzea ahalbidetzen badigu. Gezurrak bizitzea erabakitzen dugu. Eta gezurrak bizitzearena ideia fioñoa dela esango dit norbaitek, arrazoi osoz gainera, edota jarrera honesto bakarria gezurrak eta anestesiak alde batera utzi eta egiaz bizitzea dela, beste edozer burgeskeria bat delako, edo inkontzientzia hutsa. Eta bai, seguru asko hala izango da. Baina agian gezurrak kontzienteki sinestea teatro bateko protagonista izateko modu bakarria da, eta denok daukagu barnean diva txiki bat.

LEHEN ETA ORAIN ▶

Alegiko Txanberieraldatuta

Erredakzioa ▶ Denborak gauzak eraldatzen dituela ezin ukatu. Naturak, gizakiak eta materialek ezin diote aurre egin denborari. Herriak ere ez dira salbuespen eta Alegiak aldateta nabarmenak jasan ditu. Horren adibide da Txanberia. Bertan, Orendain aldera doan errepidearen hasierako base-rria desagertu eta etxebizitza berriak eraiki dituzte. Halaber, zubiak ere hobekuntzak izan ditu. PIO MONTOIA/EDUARDO ARRAYET

iragarki laburrak ▶

LANA

Langilea. Pertsona bat behar dugu ekitaldi muntaietarako. Dekoratuak, eskenatokia, aulkiak jarri eta abar. Interesatuak 943 69 18 41 telefono zenbakira deitu lehenbailehen.

Sukaldaria. Emakume sukaldari bat behar da Tolosaldeko jatetxe baterako. 606 61 52 93.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da, lau orduz lan egiteko. 635 745291 edo 943 694313.

Langileak. Lorategietako langileak, garbiketara, mantenua, postu libreak. 699 134586.

Harreragileak. Harreragileak udaletxeetarako. 943 444866.

SALGAI

Altzariak. Bigarren eskuko altzariak salgai. Oso egoera onean. 655 747200.





UDALAK ▶

LIERNI ALKORTA (Berria)

Lrura eta Leaburu, Aizarnazabal eta Itsasondorekin batera lau urtez behin-behineko izaerarekin lanean aritu ostean esango die agur legealdiari lau herriotako udalbatzek. 2003an, boto baliogabeak zenbatu ostean, ezker abertzaleko plataformak nagusitu ziren herriotan. Baina emaitza ofizialek EAJ-EA koalizioari eman zioten garaipena herri guztietan. Inork ez zuen, ordea, kargurik hartu. Ordutik, Euskal Herriarrok izenaren pean 1999ko hauteskundeetan aurkezturiko eta hautaturiko udalbatzek jarraitzen dute agintean: jarduneko alkate eta zinegotziak.

Lau herriokin batera zerrenda berezi hori osatuko luke beste bosgarren batek ere: Hernaldek hain zuzen. 2003an egoera berbera bizi izan zuten. Boto baliogabea gailendu zen bozketan eta EAJ-EA koalizioak ez zituen hartu ofizialki zegozkion zazpi zinegotzi karguak. 1999an eraturiko udalbatzak jarraitu zuen harik eta zinegotziak eta alkateak euren dimisioa eman zuten arte. Hiru urte igaro dira ordutik. Hiru urte luze udalbatzarik gabe. Astelehenero Irurako Udaletik joaten den idazkariak bideratzen ditu eguneroko kontuak, hil honen 27an zer gertatuko zain.

Ongi gogoratzen du Iruran udalbatza osatu behar zen egunean herrian bizi izandako giroa duela 12 urtetik Irurako alkate den Marimi Ugaldek. «Harritzekoa izan zen. Irura herri lasaia da, baina egun hartan jende ugari bildu zen herriko plazan ea zer gertatzen zen ikusteko». Gazteak eta zaharrak, denetik omen zen udalbatze atariko enparantzan. Egoera hartan jaso zuten Udalean EAJ-EA koalizioaren deia, «esanez bertan behera uzten zutela, ez zetoze». Ortzadar plataformari zegozkion boto baliogabeak kontuan hartu gabe, herriko zazpi zinegotzietatik sei zegozkion EAJ-EA koalizioari eta bat PSE-EEri. PSE-EEko zinegotzi bakar hura ere ez zen agertu.

Erakundeetara deituta jakin zuten, egoera hartan, aurreko udalbatzak jarraitu behar zuela, jardunean. «Plazara jaitsi eta kanpoan zer gertatuko zain zeudenei bi hitz egin nizkien eta albistearen berri eman nien». Herriarrek berria pozik hartu zutela dio Ugaldek, eta jasotako babesa eskertzen du.

Antzeko egoera suertatu zen Leaburun ere. Kimu Berriak plataformaren legez kanporatzea zela eta, EAJ-EA koalizioari zegozkion bi herriotako zazpi-

Lau urtez behin-behinekotasunean

Iruran eta Leaburun agur esango diote azken legealdiari behin-behineko izaerarekin; Leaburun ere EAJ-EA koalizioa ez zen azaldu eta Joxe Kruz Goñik izan du alkatetza



Marimi Ugalde, Irurako udalbatzeko bere bulegoan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

JOXE KRUZ GOÑI
LEABURUKO ALKATEA

«Gertatzen dena gertatzen dela ere, lapurren aurrean Leaburuko herria zutik egongo da»

na zinegotziak. Baina ez ziren azaldu; Udala osatzeko biltzarra baino bost minutu lehenago Leaburuko Udaleria fax bat bidali zutela dio Joxe Kruz Goñi herriko alkateak, «utzi egiten zutela esanez. Gaur arte!», dio irribarrez.

Gogor salatzen dute birek euren herrietan EAJ-EA koalizio-

MARIMI UGALDE
IRURAKO ALKATEA

«Askoz ere lan gehiago egiten du herria ezagutu eta maitatzen duen batek, ez duen batek baino»

zioko hautagaiak herriarrek ez izatea, PSE-EE eta PPkoak bezalaxe. Marimi Ugaldek ez du zalantzarik: «Askoz ere lan gehiago egiten du herria ezagutu eta herria maitatzen duen batek, ez duen batek baino».

Lau urte geroago, hipotesiak besterik ez dute EAJ-EAk harituriko erabakia azaltzeko. Ma-

rimi Ugalderen ustez, «Irurako herriaren nahia» ikusi zuen EAJ-EAK. «Ikusi zutenean herria plataformaren alde, edo herrikoen bat izatearen alde agertu zela, hori baloratuko zuten», dio Joxe Kruz Goñi alkatearen arabera, azalpenak eskatzeko helburuarekin, EAJren EBBra bilera baten eskaera ere bidali zuen Leaburutik, «baina erantzunik ez dugu jaso, eta lau urte pasatu dira».

Ulertu ezinik

PSOEren jarrerak ere zalantzak sortu dizkie, Madrildik ez baita euren aurkako neurririk hartu. Zalantzak zalantza, lau urte igaro dira. Arazo handirik gabeko lau urtekoa. Erakunde-

2003KO EMAITZAK ▶

Duela lau urteko hauteskundeetan, boto baliogabea nabarmen nagusitu zen eskualdeko hiru herriotan.

HERNIALDE

Baliogabe botoak.
90.
EAJ-EA.
68 (7 zinegotzi).
PP.
2 (0 zinegotzi).

IRURA

Baliogabe botoak.
353.
EAJ-EA.
176 (6 zinegotzi).
PSE-EE.
27 (1 zinegotzi).
PP.
21 (0 zinegotzi).

LEABURU

Baliogabe botoak.
173.
EAJ-EA.
74 (4 zinegotzi).
PP.
6 (0 zinegotzi).

en aldetik ez dutela inongo oportorik izan aitorzen dute. Diru laguntzak eta gainerakoak berdin jaso dituzte.

Espero eta desiotako legealdia izan da Marimi Ugalde eta Joxe Kruz Goñiren kasua. 2003ko zerrendetan ere hautagai zire biak. Zerrenda berbera aurkeztu zuten 1999an eta 2003an Leaburun; beraz, alde horretatik arazorik ez dutela izan aitorzen du Goñik. Iruran, Marimi Ugalde alkatetzarako hautagai zen 2003an ere, ez, ordea, gainerako sei zinegotziak. Horregatik, haien lana eskertzen du, «jarraitzeko asmorik ez izanda ere, beste lau urte herriaren alde lanean jarraitu dutelako».

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Informazioa. Tolosaldeko eta Leizaldeko herriak bete-betean sartu dira udal hauteskunde kanpainen. Alderdi ezberdinek aurkeztu dituzten hautagaien zerrendak bere webgunean jarri ditu ikusgai HITZAK. Oraindik ez dakizu zeintzuk diren? Sartu www.tolosaldeko-hitza.info-n eta bertan izango dituzu 30 herrien zerrendak zehazturik. Udal hauteskundearen informazio orokorra ere topatuko duzue bertan, irizti eta eztabaida interesgarriekin. Eman hemen zure iritzia.

Herriarekin, kaleetan egoteko unea

Mitinetako seriotasunarekin apurtuz, ekitaldi ezberdinak antolatuta dituzte alderdiek herritarrengana hurbiltzeko

ESTI EZEIZA

Hauteskundetako seriotasun dira leiztalde gehienak egun hauetan. Herriarekin hurbiltzeko formalkuntzak alde batera utzita herritarrengana hurbiltzeko eta modu arinago jantzen diren hauek «konbentzientzia» abalegintzen dira. Azken batean, hizketa potolo horiek baino eragin handiago izaten baitute kalean ikusten diren ekintzak. Herritarrek dira azken erabakia dutenak, eta hori oso

garbi dute politikariek. Horregatik hauen konplizitatea biltu behar izaten dute. Honekako lehen pausoa beraren burua aurkeztea izaten da, jendeak nahasmenik izan ez dezan, eta argi jaitan dezaten noizko itzura duten beraien hautagaiak. Horretan laguntzen dute kaleetan ikusi daitezkeen kartelak ere, eta hurrengo pausua, lehen alpuata bezala, jendearen hurbiltasuna lortzeko ekitaldiak antolatzea. Kanpainaren xedea herritarrengandik beste hautagaiak baino atxikimendu handiagoa lortzea baita.



Ezker Abertzalearen Eguna ospatu zuten azto Anolatan, ekitaldian artean, goizean, herriko baserrietako produktuekin osatutako azoka egin zuten. **E. EZEIZA**



Inaki Galdos EAko Batzar Nagusietarako hautagaia eta Orintza Lasa Tolosako alkatezarakoa izan ziren azto aurkezpen ekitaldia eginen, Tolosako Kultur Etxean. **E. EZEIZA**



EB-Aralar koalizioarekin euskararen aldeko ekitaldia egin zuten azto Triangulo plazan, bertan izan ziren Patxi Añobe, Batzar Nagusietarako hautagaia, Enrique Torquemada eta Inaki Izababerrita, Tolosarako hautagaia, Antzane Ezanarro eta Antton Kamarsarrikin batera. **NEZA UZTU**



Amezketan, EAeko hautagaia aukeratu zihutzen azto hainbat herritarren babesarekin. **E. EZEIZA**

CJ BT

JULIAN D TOLOSA

Inoiz jango dutun buletenak hoberean jan nahi baduzu, Julianera etorri, probatu eta berriro ere etorriko zara

Santa Klara kalea, 6
Tel.: 943 67 14 17
20400 Tolosa

hitza Harpidedunen txokoa

Lizardik antolaturiko emanaldiak direla-eta **gaur** maiatzak 13, eguerdiko 14:30ean Tolosako zerkausion egingo den **bazkari herrikoierako zozketatu ditugun txartelen irabazleak** honako hauek dira:

► Idoia Larraz (Tolosa) ► Maddalen Iztueta (Abaltzisketa)

azokelan parte hartze lehiarekin da harpidedun ospatzen. Irabazleak

GUTUNOK

Euskara baztertuta

Denon ahontan dabilta dagoeneko maiatzaren 27ko hauteskundean parte hartu behar duten hautagaien zerrendak (eta, txurra gurtien arabera, aurkezterik izango ez dutenak ere bai). Ikuspuntu eta alderdi sakonetik aztertuta daitezke zerrenda horiek, baina nik —bazterreko betiko konturak— eskararenetik egitea erabaki dut. Eta zer esango dituzet, ba... «Za-harrik berria...» lehenengo lepotik burua eta antzeko esaldiak dotozkit burura zerrenda badizuk ikusi eta gero Euskararen

Ohartu Erakundearen Kontseiluaen hitzak neutro eginez, ordezkari politikoak izango direnek berriko hitzuz eta ezagutzea larria da eta euskaltzaleak eta abertzaleak diren alderdiek hautagai erdialdeko elebakarrak aurkeztea ulertzen. Orain lau urte eman zuten atzerapausoa, alderdiek berek beren buruari jarrizko helburu eta egitasmoekin ikusi eginez. Zaparta handirik gabe eta inor asko aitoratu gabe egin zuten eta, orainan ere, haizea egin dute. Izan ere, egia da, era berean, euskaldun askori bost axola dioa euskarak eta euskaratzaileak. Kontua da enretarako irabazte, ondorengo lau urteetan kasu izprik egingo ez

badieret Euskalduntasunetz bete ohi zaigu ahoa, baina, gero, erdarazko trajek jantzia ibiltzen gara egunerokoa, euskaratzaileak egun eta ospakizun batzuetan itxurakiaz egiteko gordeta. Batzuen ustez, asko esatea izango da. Nik neuk ere nahiago nuke deskuidatuta banengo, baina ez dit bestelakorik erakusten eguneroko martirik.

JESUS PEÑABARRANO ► BARRA

EAren gezur soziala

Tolosako Udalaren enpresa den Tolargik lanpostu bat berteko prozesua OTEIC enpre-

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

sa pribatuaren esku utzi du. Hautagai batek azterketa euskaraz egin eskatu du, baina euskaraz ezin dutea egin eta erdaraz egitea behartu dute. Franco hil dela hogeita hamabi urte ondoren, gertatzen honak lau gauza nabarmentzen ditu agintariek ez dutela legea betetzen, euskaldunen hizkuntza eskubideak urratzen direla, enpresa publikoak eta pribatuak oraindik ez direla euskaldunak, eta hizkuntza politika honekin Euskal Herria euskalduntzearen aldeko dela. Alkate jauna, komunikazioaren hariak mugitzen trebesia erakusten duela. Tolargiren joko-bidarekin mezu hau bidali dio Tolosako herriari: euskara ondo dago! haurrekin aritzeko

INAZO ADRRE ► EZKER ABERTZALEKO KIDEA

GAURKO IRUDIA



EHNarekin bozkatzera gonbidatuz

E. Ezeiza ► Euskal Herria ondo bato dela adierazteko alde- ra, eta eremu ezberdinetan «euskal herritar gisa gure izena eta izena adierazteko de- terminazioarekin» maiatzaren 27ko hauteskundean EHNa erabiliz bozkatzeko deia egin- ten du Bai Euskarari herri ekimenak. Hautesleketara hurbilduko diren guztiak eus- kal herritar bezala bozkatzera animatu. Bestalde, Laudion ospatuko den Nazotasun Egu- nera joateko gonbita lizuratu dute honetarako autobuskak ipintze eskualdeak.

ESTI EZEIZA

EKITALDIAK

TOLOSA Gaur, 13:00etan. Eusko Alkartasunarekin Tolosako alkatezarako hautagaien zerrenda aurkeztuko dute Zerkausion.

BERASTEGI Bihar, 17:30etan. Inaki Galdos EAko Batzar Nagusietarako hautagaia eta Orintza Lasa Tolosako alkatezarakoa izango dira.

IRURIA Bihar, 20:00etan. EAko zinegotziaren zerrenda bestekele elkarretarata egingo dute udalbatze aurrean. *Herrak du hitza eta erabakia* / Hauteskunde demokratikoa lelopean.

ASTASU Bihar, 19:00etan. Inaki Galdos EAko Batzar Nagusietarako hautagaia eta Orintza Lasa Tolosako alkatezarakoa izango dira.

AMEZKETA Gaur, 12:30etan. Kimu Berri taldearen aurkezpen bilera egingo dute Amezketako balio antzeko gelan.

BI HITZETAN ► IBARRAKO GAZTE ASANBLADA

Asier Imaz ► Ibarrako Gazte Asanbladak, IGAK, azken lau urte hauetan herrian bizi izan duten egoperean berri eman dute. Gasteak elkarrekin dituen eragile moduan ere, udalbatze- ak sortu zituzten beste eta zail- lantzek ere alpuata dituzte. Osti- ralero eginen duten gazte asan- bladan, **Bi Hitzetan** ataleko gasteak erantun dituzte.

Zer-nolako balorazioa egingo dugu Ibarrako Udalaren asan- blan lau urte-olako egintza- dia?

Hauteko eta behin, azken lau urte hauetan egintzaldian egon direnak epokotzen ez zuztekin eskerlekuak betetzen egon dire- la esan nahiko genuke, eta ho- rretaz gain, Udalaren ordezkari-

«Udala eta gure arteko harremana gutiz deuseztua dago»

Zure espezialista, zer balorazio nahiko zenuke Udala- ri?

Gu gazte izanik eta etxebizitza alorrean ditugun arazoak ikusi- aita, Udalak duen proiektua gasteen errealtatearekin guti- ztatzen dela esan nahi dugu. Amaitzeko, apuratu nahi- ko genuke Gazte Asanbladak edozein ekintza antolatzeko gaitasun Udalaren aldean izan- dituen oztipoak, honek gure arteko harremana gutiz deuse- ztu duela.



'EGUNKARIA AUZIA' ▶

«Kontsigna politikoa» ematen duela esan dute auziperatuek

Audientzia Nazionalaren erabakiaren aurrean «errugabe» direla esan dute

ASIER IMAZ

Egunkaria auziko auziperatuek eta euren abokatuek prentsaurrekoa eskaini zuten atzo. Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. «Ezusteke galanta» hartu dutela aitortu zuten, Espainiako Auzitegi Nazionalak ahozko epaiketa egiteko erabakia hartu zuela jakitean.

Miguel Angel Carballo fiskalak, abenduan kasua artxibatzeke eskatu zuen, «delitu frogarik ikusi ez zuelako». Baina Auzitegi Nazionalak, AVT eta Dignidad y Justicia herri akuzazioei egin die kasu, ondorioz ahozko epaiketa egingo dute.

Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Pello Zubiria, Txema



Egunkaria auziko auziperatuek atzo emandako prentsaurrekoa. GORKA RUBIO/ARGAZKI PRESS

Auzmendi eta Martxelo Otamendi tolosarrak, «errugabek direla» esan zuten prentsaurrekoan. «Gure errugabetasuna ezagutzen dugulako, gure abokatuek delitu-zantzen funtsik eza agerian utzia

zutelako, jurisprudentzia erre alde genuelako, eta bereziki iazko abenduan fiskalak auzia ixteko eta epaiketarik ez egiteko eskatua zuelako, hain zuzen ere frogarik ez dagoela eta».

Auziperatuek, Espainiako

Auzitegi Nazionalaren erabakian kutsu politikoa ikusten dute. «autoak jarrera juridiko zehatza izan partez, kontsigna politikoa ematen duelako». Hala, «argi erakusten du Auzitegiaren sinesgarritasun eza».

AZOKA ▶

Egun eguzkitsu eta animosoa izan zen atzo Tolosan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguzkitsua esnatu zen Tolosan. Mahaletan animazio polita ikusi genuen goizeko lehenengo orduetatik. Zerrenda ere oso polita izan zen. Udaberriko barazki asko, babak, ilarrak, patata berria, rabanitoak, azak, zainzuriak edo-ta espinakak besteak beste. Perretxiko zerrenda lodia; zizak, ziza horiak, mortxelak eta sende-ruelak ohiko prezioetan. Ohizkoa den gazta zerrenda haundia, eta artisau ogia, edota ekologiko produktua.

Berdura Plazan ere animazio izugarria izan zen. Baratzan landareak sartzeko garaia iritsi da, eta honekin, erosle asko gerturatzen dira.

AZPIEGITURAK ▶

Autobiatik igarotzea gomendatu dute lanak direla eta

Anoetatik Tolosarako bidean eta Irurara eta Anoetara joateko bidean izango da

ERREDAKZIOA

Arkaitza S.A. eraikuntza enpresak jakinarazi duenez, Tolosan egiten ari diren lanen ondorioz, gaur autoak Anoetatik Tolosara joateko «egokiena» autobia erabiltzea izango dute. Irura eta Anoetara joateko ere, autoek autiba erabil dezaten gomendatu dute.

GIZARTEA ▶



Donejakue Bidea zaldi gainean

A. Imaz ▶ 30 zaldun inguru Tolosako Santa Maria plazan elkartu ziren atzokoan. Donajakue Bidearen astearen barnean kokatua zegoen ekitaldian. Zaldunak lehenik Andoainera joan ziren. Bertan bazkaldia eta arratsaldez itzulerako bidea Donajakue erroimes bitetik egin zuten, eguraldia lagun zutelarik, Tolosara. A. IMAZ

TOLOSA ▶



Dantzari txikiak kaleetan

A. Imaz ▶ Lizardi Kultur Elkarteak Asteburu Kulturala antolatu du estreinakoz. Tolosan euskal giroa sortzeko eta zabaltzeko helburuarekin dantza, kantua eta parranda uztartzen dituen egitaraua osatu dute antolatzaileek. Atzo goizean zehar, eskualdeko dantzari txikiak kaleetan barrena giroa jarriaz ibili ziren. NEREA URBIZU

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KULTURA ▶

LEIRE LARDIZABAL (Berria)

Erritmo biziak eta instrumentu ikusgarriak dituzte eta geurean dantzatzeko ohitura handirik ez dugun arren, erritmo beroek arrakasta dute, jai giroa pizten dute. Egia da perkusio taldeak ugaritu egin direla azken aldian Euskal Herrian. Eta arrazoi garbirik ez dagoen arren, behar bada Carlinhos Brown inguruotan ibili izanak izango zuen bere eragina. Portugal eta Afrikako herri ezberdinetako tradizio musikalaren nahasketan du oinarria batzuei lotsa puntuaz eta besteek konturatzeko aldakak mugiarazten dizkien musika honek... eta geroz eta gehiago dira Euskal Herrian Brasilgo Sambaren, oihartzuna zabaltzen ari direnak, haietako bat da Mulambo, Tolosa eta inguruko hainbat saltserok osatzen duten taldea.

Beste kultura batzuk ikasi eta geurea zabaltzea dela esan daiteke Mulamboren erritmotan islatzen den nahia. Agian horregatik izango du taldearen izenak ere Brasilgo talde baten abestiaren izenean jatorria.

Danborrada tropikal honen lehenengo ikastaroak Bilboko Txatunga Bemberen taldearekin egin zituzten. «Beraiekin harremanetan jarri eta bertako kide batekin ikastaro bat egin genuen Tolosako 20-25 bat lagunek». Geroztik 7 urte eta 100 kalejiratik gora biziak ditu Mulambok («ikastaroak jaso eta emanaldiak entzutek ikastaroak eman eta hainbat herritako kaleak gure musikaz alaitze iritsi gara»).

Tolosan kalejirak egin izan dituzte eta inauterietan ere karroza bat prestatzen dute eta dirudienek, bakarren batzuei gustatu eta beraiekin batera jotzen hasi dira «egun 20-25 bat lagun gara, baina ez dugu kopuru finkorik». Astearte, ostegun eta ostiralean bi orduz elkartzen dira entseguak egiteko, bakoitzaren lanaren arabera izaten da asistentzia, baina 8-10 bat elkartzea beharrezkoa izaten da, bestela ezinezkoa baita entseatzea eta gero inon jotzea ere. «Horrelako talde bat aurrera ateratzeko konpromisoa behar da, ez du balio gaur entsegua etortzeak eta bihar zinera joateak entseguen paso eginez».

Musika ikasketak

Bakarren batek pentsa dezake halako saltsa batean aritzeko musikan aditua izan behar dela, baina gogo besterik ez omen da ezinbestekoa... solfeo ikasketak beti komenigarriak diren arren. Trukean berriz, talde giroa eta «kristoren adis-



Mulambo taldeak ekitaldi ugari hartu du parte. IRUTXULOKO HITZA

Afro-brasildar erritmo sentsualak parrandarako

Mulambo talde ezaguna Tolosako kultur ekitaldi askotan aritu da eta makina bat aldiz alaitu ditu herriko kaleak



Mulambo taldea, Kultura Astearen baitan aurreko urtean eskaini zuen emanaldian. J. ASTIBIA

HASIERA

Txatunga Bembe taldeko kideek eman zieten lehenengo ikastaroa duela zazpi urte

HELBURUA

Mulamboren nahia beste kultura batzuk ikastea eta bertakoa zabaltzea dela esan daiteke

kidetasuna» jaso dutela diote Mulambokoek; beraien kalejira baten parte hartzea besterik ez da behar horretaz jabetzeko! Gorputza dar-dar, arnasa kolpeka... pulstua asaldatuko dizun erritmo zoro hori sortzeko hainbat instrumentu astintzen dituzte: surdoak, kaixa, repiquea, tinba, agogoa, xekerea, gansa, tamborina... Entzuten dituzten Brasilgo taldeen abestiak jotzen dituzte «Hasieran Rio de Janeirokoak jotzen genituen, baina egun Salvadorrekoak, estilo ezberdinak dira».

Ikastaroak atzerrian

Aldaketa horretan zerikusi zuzena izango du seguru aski, Mulambokoek Salvador de Bahian Ilê Aiyê taldekoen eskutik jasotako ikastaroak. Amsterdamen, Iruñean, Ean, Marseillan ere ibiliak dira perkusioaren artea ikasten.

Batez ere Salvadorreko Ilê Aiyê taldea eta Bilboko Txatunga Bembe erreferentzi hartuta, musikaren bitartez itsasoz bestaldeko kultura dakarkigute. Eta heien estiloko beste talde batzuekin ere konpartitzen dute euskaldunoi aldatetako herdoila kentzeko erronka. Tolosako inauterietan urtero egiten dutena izan daiteke honen adibide nabarmena «Txatunga Bembe eta Ehunzangorekin batera karroza bat prestatzen dugu eta inauterietarako abesti berezi bat». Musikari, dantzari eta animatzaileen artean «guztira 80-100 lagun elkartu izan gara egun berezi horretan». Ttakunpa taldearekin ere saioen bat edo beste egin izan dute, eta martxoan Mal de Ojorekin abesti bat grabatu zuten eskola txikientzat.

Kultur artekotasanaren, mestizaia exotikoaren elkarte berria sortu du Mulambok, euskaldunoi erritmo brasileiroa zabaltu eta kontagiatuko diguna. Kolore bizi eta martxa biziagoz, edozein herri hankaz gora jartzeko prest dira. Ordegoa botata dago... Ba al da inor martxarako prest?

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Kultur Astea: 12:00etan txakoli dastaketa udaltxe aurrean; eta 18:00etan Kutxaren eskutik doainik Poxpolo, Mokolo eta Konpainiaren emanaldia ikusi ahal izango da.
Tolosa. Herri bazkaria izango da Zerkausan, Lizardi elkarteak antolatuta. Norberak bere jakiak eraman behar baditu ere, elkarteak 300 litro sagardo jarriko ditu. Txaranga eta trikitilariekin kalejira izango da 12.30ean eta musikak bazkalostea ere animatuko du.
Tolosa. Donejakue bideko Tolosa-Beasain etapa egingo dute oinez eta bizikletaz, Donejakue Bideko Lagunen Elkartearen laguntzaz.

DEIALDIAK

Tolosa. *Azur eta Asmar* gazteboentzako filma euskaraz Leidorren 17:00etan.
Tolosa. *El buen pastor* filma 19:30etan eta 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.
 Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

Bihar
 Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
 Tolosa. Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegana* (errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ikasleen txanda

IRURA ▶ Kultur Astearen baitan Ikastola Eguna ospatu zuten atzo; goiz-goizetik hainbat ekitaldi egin zituzten herriko plazan



ESTI EZEIZA

Kultur Astearen baitan umeen txanda izan zen atzo. Goizean goizetik jendez bete zen herriko enparantza, hala, jaiari hasiera emateko kalejiran ibili ziren herrian baina gaztetxoak.
 Kalejirarekin amaitu eta gero, berriro denak plazaren inguruan bildu eta guraso eta haurren arteko jokoak egin zituzten. Hemen gaztetxoek bezain besteko grina jarri zuten gurasoek eta gogor saiatu ziren jokuetan irabazten. Jarraian, indarrak berritzeko bazkaria egin zuten han bertan. Bazkal ostean festarekin jarraitu zuten Ikastolako ikasle ohien antzezlanarekin, abestiekin eta Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazo taldearekin. Egunari musikarekin eman zioten amaiera, herriko taldeek kontzertua eskaini baitzuten trinketean.
 Kultur Astearekin jarraituz gaur eta datorren egunetan ere egongo da zer eginik eta ikusirik Iruran.

Heldu eta umeen arteko jolasak egin zituzten goizean, hasteko aulki jokoa egin zuten. E. EZEIZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Ugaitz Mujika (Amezketan).
 Gaur 2 urte. Zorionak Aimar, Iraitz eta ebekoen partetik. Txob!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzañ Udaltxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

egin behar dugu

Mª Angeles Lazkano
 Zuzurkilo Alkatetzarako hautagaia

Bakartxo Telleria
 Villabonako Alkatetzarako hautagaia

Fidel Azpiroz
 Anoetako Alkatetzarako hautagaia

Txelo Romero
 Ibarra Alkatetzarako hautagaia

Patxi Ulanga
 Ikaztegiako Alkatetzarako hautagaia

Pili Zubiarrain
 Altzoko Alkatetzarako hautagaia

Jokin Bildarratz
 Tolosako Alkatetzarako hautagaia